

# JARRAIBIDE TEKNIKOA- 05

## (JT-05): BIDE ETA EREMU PUBLIKOEN GARBIKETA ETA DESINFEKZIOA

2020

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

**OSASUN SAILA**  
Osasun Sailburuordetza  
*Osasun Publikoaren eta Adikzioaren*  
Zuzendaritza

**DEPARTAMENTO DE SALUD**  
Viceconsejería de Salud  
*Dirección de Salud Pública*  
y Adicciones

**Dokumentua:** JT-05: Bide eta eremu publikoen garbiketa eta desinfekzioa

Jarraibide teknikoa, Osasun sailburuaren 2020ko apirilaren 2ko agindua, SARS-CoV-2ak (COVID-19) eragindako pandemiaren ondorioz gainazalen garbiketa eta desinfekzioaren inguruko neurriak eta bestelako neurri higienikoak ezartzen dituen, garatzen duena.

**Argitaratze-data:**

**2020ko apirilaren 6a. 0 bertsioa**

**Jabea:**

Eusko Jaurlaritzza. Osasun Saila.

## Edukia

1. JUSTIFIKAZIOA.....	1
2. XEDEA .....	1
3. GARBIKETA ETA DESINFEKZIO NEURRI OROKORRAK.....	1
Bide publikoen erraztea.....	1
Kaleen baldeatzea.....	1
Desinfekzioa.....	2
4. ERREFERENTZIAK .....	3

## 1. JUSTIFIKAZIOA

SARS-CoV-2 birusaren infekzioa 5 mikratik gorako arnas-tanten bitartez eta infektatutako pertsonen sekrezioekin harreman zuzena edukita transmititzen da batez ere, pertsona batetik bestera, baina ez dirudi metro batetik edo bi metrotik gorako distantzietan gertatzen denik. Eskuetan edo bestelako objektu edo gainazaletan egon daitekeen material kontaminatuaren bitartez ere eman daiteke kontaktua. Beraz, oso garrantzitsua da higieine eta garbiketa neurriak zorrotz betetzea.

Osasun sailburuaren 2020ko apirilaren 2ko aginduak, SARS-CoV-2ak (COVID-19) eragindako pandemiaren ondorioz gainazalen garbiketa eta desinfekzioaren inguruko neurriak eta bestelako neurri higienikoak ezartzen dituenak, garbiketaren eta desinfekzioaren inguruan aintzat eduki beharreko alderdi orokorrak xedatzen ditu, eta garbiketa eta desinfekzioa jarraibide teknikoaren bidez egingo direla horren aplikazio-eremuan zehaztutako atal desberdinetan; hala, eguneratu eta beharretara zein ezagutza tekniko eta zientifikoaren aurrerapenetara egokitu beharko dira.

## 2. XEDEA

Bide eta eremu publikoetan aintzat eduki beharreko garbiketa eta desinfekzio jarraibideak ezartzea.

## 3. GARBIKETA ETA DESINFEKZIO NEURRI OROKORRAK

Ondorengo jarduera-sekuentziak edukiko dituen garbiketa eta desinfekzio prozedura aplikatzea gomendatzen da:

### Bide publikoen erraztea

Hondakinak eta materia organikoa garbitzeko erraztuko dira bide publikoak, eta errazte hezea izango da aukera onena.

### Kaleen baldeatzea

Kaleak horretarako dauden kamioien bidez baldeatuko dira, ur desinfektatua edo sarekoa erabiliz, kaleak garbitzeko espezifikokoak diren herrestatzerako detergente tentsioaktiboekin indartuta. Produktu detergente/garbitzaile horiek erabiltzen direnean, erabilera-jarraibideak beteko dira, eta kontzentrazioa merkatuan jartzearen arduradun direnek adierazitakoa izango da.

## Desinfekzioa

Desinfekzioa beharrezkoa bada, Espainian baimendutako biruziden zerrendako desinfektatzaileak erabiliko dira, hemen adierazitako hauek:

[https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov-China/documentos/Listado\\_virucidas\\_PT2\\_ambiental.pdf](https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov-China/documentos/Listado_virucidas_PT2_ambiental.pdf)

Osasun Ministerioan erabilera pertsonal espezializaturako erregistratutako desinfektatzaileak erabili behar badira, Establezimendu eta Zerbitzu Bioziden Erregistro Ofizialean (EZBEO) inskribatutako enpresetako teknikari kualifikatuek aplikatuko dituzte.

(<https://www.euskadi.eus/informacion/productos-quimicos-salud-ambiental/web01-a2ingsan/es/>)

Eskuragarri dagoen informazioaren arabera, koronabirusak modu eraginkorrean inaktibatzen dira minutu batean etanolarekin (%70), hidrogeno peroxidoarekin (%0,5) edo sodio hipoklorito soluzio batekin (%0,1) (1000 ppm).

Desinfekzioa sodio hipokloritoarekin (%0,1) egiten bada, motxila lainoztatzaile bidez aplikatuko da. Lixibek 35-100 gramo kloro aktibo dute litroko. Litro bat ur bakoitzeko 30 ml lixibarekin -edozein lixiba komertzial izan daiteke-, gutxienez %0,1eko hipoklorito kontzentrazioa duen disoluzioa lortzen da.

Garbitzaileek eremu horiek garbitzeko prestakuntza egokia jasoko dute, eremu horietarako norbera babesteko ekipamendua erabiliko dute, eta prebentzio-zerbitzuaren jarraibideak beteko dituzte. Ziprizzintzeak eta aerosolak saihestea edo minimizatzea gomendatzen da.

### **Desinfekzioa non aplikatzeari buruzko gomendioak**

Ez da komeni bide publiko guztiak eta kanpoko eremuak, oro har, desinfektatzea.

Osasun-alarmaren ondoriozko egungo murrizketak direla-eta, ia baztertuta daude pertsona-kontzentrazioak.

Etzegabeek gauak pasatzeko erabiltzen dituzten lekuak eta funtsezko zerbitzuak eskaintzen dituzten zentroetarako (osasun zentroak, elikagai-saltokiak, garraioa) sarbideak dira desinfekzio-beharrari dagokionez baloratu beharreko lekuak. Eskuekin kontaktuan egoten diren gainazalak desinfektatu beharko liriateke bereziki, eskudelak, barandak, bankuak eta abar.

## 4. ERREFERENTZIAK

COVID-19ari buruzko informazioa, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarena.

<https://www.euskadi.eus/nuevo-coronavirus-covid-19/>

COVID-19ari buruzko informazioa, Osasun Ministerioarena.

<https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov-China/home.htm>

*COVID-19 koronabirusaren pandemiaren ondorioz kaleak garbitzeko prozedura*, Osasun Ministerioa

[https://www.mscbs.gob.es/en/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov-China/documentos/Procedimiento\\_limpieza\\_viaria\\_COVID-19.pdf](https://www.mscbs.gob.es/en/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov-China/documentos/Procedimiento_limpieza_viaria_COVID-19.pdf)

Produktu kimikoei buruzko informazioa. Euskadiko Establezimendu eta Zerbitzu Bioziden Erregistro Ofiziala

<https://www.euskadi.eus/informacion/productos-quimicos-salud-ambiental/web01-a2ingsan/es/#722>

Bioziden Erregistro Ofiziala

<https://www.mscbs.gob.es/ciudadanos/productos.do?tipo=biocidas>

Espanian baimendutako biruziden zerrenda

[https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov-China/documentos/Listado\\_virucidas.pdf](https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov-China/documentos/Listado_virucidas.pdf)